

## Gorputza eta emozioengandik ikasten

2010/11/02

Urriaren 22an, Arantzazun, erakunde eta empresa ezberdinetako pertsonak elkartu ginen, Pertsona eta Taldeen garapenerako aditua egin edo egiten ari direnen inguruan.

Bertan, lidergorako garrantzizkoak diren emozio eta gorputzaren kudeaketarako hainbat bizipen izan genituen, biziz ikasiz aritu ginen. Bestalde, aditua egin dutenek lortzen dituzten balioak erakusten duen ikerketa ere azaldu zitzaien.

Elkar ikusteko ta ikasteko aukera paregebea izan genuen, bukatzean, bakoitzak hausnarketarako esperientzia eraman zuen, baita, bere egunerokotasunean zerbait baliagarri eta esanguratsua txertatzeko aukera ere.

Denek aho batez bukatu zuten eskaera berberarekin: jarraitu dezagun horrelako ekitaldiak antolatzen.

